



2010eko otsailaren 12an Joan zinen, 56 urterekin, betirako. Ahizpa Jaioneren deia jasoko ondoren, Berangoko eskolatik karraderan aterata eta metrora jo nuen, Gurutzetako ospitalera lehenbailehen ailegatzeko asmoz. Metroko bagoian, nire eskuak igurtzirik, ene Jaungoikoari arren otoi egin nion, Aluko egoera latz hartatik irten zintezan eskatuz. Baina Jainkoak ez zidan entzun, jadanik nik ez nekiena zera zen, hilda zeundela. Ospitalean, amabitxirengana hurbildu nintzen begiak malkoz beteta eta berehala sendagile altu eta guapoak izkina batera eramane gintuen: Lo siento, hemos hecho todo lo posible pero Maria ha fallecido.

EZZZZZZZZZZZZZZZZZZZZZZZZZZZZ!!! Nire ama, zergatik? Zergatik!!! Eta momentu hartan ene buruan gauza bat bakarrik nuen, ene neba – arrebei ohartarazi behar niela, baina nik ez nekiena zera zen, beraiek berri ikaragarriaren jakitun zirela. Mobila hartu, ahizpa zaharrenari deitu eta etenaldi baten ondoren, erantzun labur bat txu egin zidan “badakigu, laztana”. Ahizpa nagusia, fuerte eta ahula,